

# Ezetz beti da EZETZ!

**Sortzaileak:** Oiartzungo Haurtzaro ikastolako LH6ko ikasleak 2019-2020ko ikasturtean "Esan Raparekin" askebidean Haziak egitasmoaren baitan.

①

Amona etorri da gaur gure etxera  
batera atera gara biok parkera  
ni ez naiz hain txikia enteratu ote da?  
ez diot ezetz esan nahi minduko al da bera?

②

Zuk esaten didazu itxaron nazazu  
ezin dizut itxaron presa daukat aizu  
beste egun batean gelditzen gara gu  
beragandik urruntzen joan naiz pausuz pausu

③

Ni ez naiz izango zure itzala  
ez naiz makala, zer uste duzu ala?  
zuk esaten didazu aldatu behar duzu  
ni beti izango naiz nahi dudana bezala

④

Aitorrek esan zidan "nahi duzu jolastu"?  
ezetz esan nion ez zuen onartu  
ni gero nahastu ta bihotza hustu  
nik nahiko nuke momentu hau ahaztu

**Ezetz beti da ezetz  
esan lasai ezetz besteari  
ezetz beti da ezetz  
kasu egin zure buruari  
ezetz beti da ezetz  
esan lasai ezetz besteari  
ezetz beti da ezetz  
aurre egin zure beldurrari**

①

- Nahi al duzu etorri nire etxera  
pleian jolastera eta lo egitera?  
- Ez, nahiago dut joan kalean jolastera  
ezetz esaten dizut baina laguna gera

②

Egun polit batean parkean nintzen  
eta hortikan gutxira Patxi etorri zen  
berak galdetu zidan jolastu al naike?  
ta nik erantzun nion barkatu baino ez!!

③

Astearte batean ni frontoian nintzen  
hamaiketakoa eskatu zidaten  
nik esan nien barkatu baino ez  
eta denak joan ziren beldurrez

④

Osaba hemen dago ez da etortzen maiz  
ez da iritsi garaiz dator aurpegi alaiz  
aurpegi alaiz  
baina azkenean lagunekin joan naiz

## Ezetz beti da ezetz..

①

Handi bat etorri zait hamaiketako eske  
mutila zurearen bila joan zaitezke  
berak zer nahi duen niri bost  
eta azkenean ezetz esan diot

③

Lagun bat etorri zait hementxe itxoiten dago  
haserretu egin ginen eta orain okerrago  
barkamena eskatu dit erdizka arraro  
ezetz esan diot haserreago

②

Nik esan nion irakasleari  
etxeko lan gehiegi ez ipini neri  
ez eman martxa nire buruari  
emango dizut, beste 100 opari

④

Lagun berria zara hori badakit  
nik ez zaitut ezagutzen asko oraindik  
zuk esan didazu etorri behar duzu  
nik ez ditut utziko besteak zugatik

## Ezetz beti da ezetz...



haziak

  
Hartzaro Ikastola  
—GIARTEUS—